

BIDERAGARRITASUN AZTERKETAK EGITEKO LAGUNTZAK

1. Artikulua. HELBURUAREN DEFINIZIOA ETA DIRULAGUNTZAREN XEDEA.

Enpresa ideiak dituzten pertsona eragileak beren proiektuak garatu, eta beren Negozio Planak egin ditzaten, biharko enpresen bideragarritasuna berresteko, Basauriko Udalak, Behargintza Basaur-Etxebarri udal sozietatearekin duen lankidetzaren barruan, laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu bideragarritasun azterketak egitera zuzenduta, eta horrekin, Negozio Planak hobetzearen ondorioz sor daitezkeen gastuei aurre egiten lagunduko du, eta horren finantziatorako funtsak bai Basauriko Udalak bai Europar Gizarte Funtsak jar ditzakete, azken horiek Eusko Jaurlaritzaren IZARTU Programaren bidez.

Programa hau garatzearen bidez, Negozio Plana egiteko, bai itzuli beharrik gabeko laguntza ekonomikoak bai prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen dira, eta guzti horren helburua bideragarritasun azterketa garatea da.

2. Artikulua. DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETENAK ETA ESKATUTAKO BALDINTZAK.

Onuradunak, Basaurin erroldatuta dauden eta enpresa proiektuak dituzten pertsonak izango dira, proiektu horiek Bideragarritasun Azterketarako eta Negozio Plana egiteko prozesuan egon behar dute, hain zuzen, Behargintza Basauri-Etxebarri Enpresak Sortzeko Laguntza Zerbitzuan. Laguntza horiek lortu ahal izateko, beharrezkoa izango da Negozio Planaren prestakuntzan aurrerapen nabarmenak eginda izatea.

Proiektuan pertsona bat baino gehiagok parte hartzen badu, enpresako proiektu bakartzat hartuko da.

Emakumeek, gazteek, 45 urtetik gorako pertsonak eta lana bilatzeko arazoak dituzten kolektiboek eginiko proiektuei lehentasuna emango zaie.

3. Artikulua. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN EGITATEA, ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Laguntza Programa honen barruan dirulaguntzak emango dira, itzulgarriak ez direnak, eta izaera orokorrekin, subentzionagarri diren gastu guztien %75a emango da.

Proiektu bakoitzera zuzenduko den gehienezko kopurua 1.600 eurora igoko da.

Izaera komunarekin, atal honetan jasotako kontzeptuei erantzungo dien gastuak edozein pertsonak egindakoak izan daitezke, baldin eta, horiek egiteko momentuan, proiektua bultza duen ekipokoak balira, hain zuzen, Negozio Plana garatzen ari litzatekeen ekipokoa. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak direla ulertzen da, Bideragarritasun Azterketaren garapen eta hobekuntzarekin zerikusia luketen gastuak, eta zehazki, hurrengo hauek:

- Sustatzailearen prestakuntzarako ikastaro edo mintegietan parte-hartzea, baldin eta Basauriko Udaleko enplegu Arloak edo Behargintza Basauri-Etxebarri erakundeak betetzen ez dituzten prestakuntza eremukoak balira, eta zuzenean, bideragarritasun azterketaren helburuarekin zerikusia balute.
- Azoka espezifikoetara joatea, eta horien barruan daudela joko da, ekipo sustatzailea bertara joateagatik eta han egoteagatik sortutako gastuak. Kontzeptu horren ondorioz egindako gastuak onartuak izateko, dokumentu bidez zuriu beharko da parte-hartzea, eta horretarako, sarrerak aurkeztu beharko dira edo beste dokumentazioaren bat, eta Epaimahai ebaluatzaileak egokitzat jo beharko du hori.
- Prestakuntza, Enpresak bisitatzea, bezero izan daitezkeenak edo lehiakideak, desplazamendua Basauritik kanpora egin denean. Arrazoi horregatik egindako desplazamenduak diruz lagundu daitezke, baldin eta horiek benetan egin direla dokumentu

bidez zurituko balitz, hain zuzen, bisita-txartelen bidez, foileto bidez edo beste edozein bitarteko bidez, eta Epaimahai ebaluatzaileari egokiak direla irudituko balitzaio.

- Enpresa nahiz azoketara eginiko bisiten garraio gastuak: Dirulaguntza kalkulatzeko oinarria euroaren 29 zentimotan ezartzen da, kilometro bakoitzeko. Honako gastu hauengandik ordainketak egin ahal izateko, egindako kilometro kopurua zehartu, autobidearen ticketak eta autobus, tren, abioi edo erabilitako beste edozein garraioaren txartelak aurkeztu behar dira, eta baita, egindako kilometroak zehaztu behar dira. Beste kasuetan bezala, kopuru horri dagokion portzentaia aplikatuko zaio.
- Mantenu gastuak: Baldin eta janaria, gaua ohiko etxebizitzatik kanpo pasa beharrekin lotuta ez balego, gastu horiengatik laguntza eman daiteke, eta horren kalkulurako oinarri gisa, zuritu egin beharko den gastua hartuko da, baina hori, gehienez, 14 eurora igoko da. Gaua egin beharko balitz, mantenu-ordainaren gehienezko oinarria 42 eurora igoko da, sustatzaile bakoitzeko eta eguneko. Kontzeptu honetan sartutako gastuak ez dira inola ere ordainduko, baldin eta eskatzaileak ez badira enpresa-proiektuaren sustatzaileak.
- Ostatu-gastuak: Diruz lagundu daitezke, eta dirulaguntza kalkulatzeko gehienezko oinarria 85 eurokoa izango da, sustatzaile eta gau bakoitzeko. Gastuak ostatukoak bakarrik izango dira, eta hortik kanpo geratzen dira beste gastu txikiak, aparteko izaerakoak izan daitezkeenak.
- Aholkularitza espezializatutako gastuak, betiere, Behargintza Basauri-Etxebarri sozietatean Negozio Plana garatzen diharduten enpresek eskuratu ahal dituzten zerbitzuen artean horrelakorik ez badago.
- Prospekzio azterketak eta dokumentazioa.
- Bideragarritasun azterketaren garapenerako beharrezko izena daitezkeen beste gastuak, eta horiek, aurretiaz, Epaimahai ebaluatzaileak baloratuko ditu.

Azkenik, ez dira diruz lagunduko, hurrengo kontzeptuen barruan sartzen diren gastuak:

- Enpresa proiektua garatzearekin edo gauzatzearekin lotutako inbertsioak.
- Garraioko ibilgailuak alokatzea eta erostea.

4. Artikulua. ESKARIAK AURKEZTEKO ERA.

4.1. Eskariak, bere termino guztietan egokiro beteak, eta beharrezko dokumentazioa erantsita, hurrengo atalean adierazten dena, Behargintza Basauri-Etxebarri sozietatearen administrazioan aurkeztu behar da, Baskonia kaleko 1.

Eskaria aurkezte hutsak, interesatuak Oinarri hauetako edukia onartzen duela, adierazi nahi du.

4.2. Eskariarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa:

- a) Bideragarritasun Azterketa egiteko laguntzen eskaria, horrek Behargintza Basauri-Etxebarri sozietatearen Enpresa Sorkuntzarako Laguntza Zerbitzuak emandakoa izan behar du.
- b) Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen fakturak eta egiaztagiriak, BEZa banatuta eta tasak.
- c) Pertsona eskatzailearen NA-ren kopia.
- d) Basauriko Udalaren hartzekodunaren fitxa, non enpresaren banku-datuak jasoko diren. Fitxa hori, pertsona eskatzailearen kontua zein zein erakunde finantzarioan dagoen kontuan izanda, erakunde horrek zigilatua egon behar du. (Eredua, honi erantsita doa).
- e) Basauriko Udalaren Ekonomia eta Ogasun Arloko jatorrizko egiaztagiria, udal izaerako zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatuko duena, edo behin-behinekotasunez, eskaria egindakoarena.
- f) Egin dituen edo egin asmo dituen gainontzeko finantziario-eskariei buruzko aitortpena, oinarri hauetan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen kostuak ordaintzeko direnean. (Eredua, honi erantsita doa).

Zinpeko aitortpena, non agertuko den ez direla kanporatuak izan dirulaguntza publikoak jasotzetik, arau-hausteak egitearen ondorioz. (Eredua, honi erantsita doa).

Udal honek emandako dirulaguntzarik jaso balute, egokiro justifikatu dituztela agertuko duen zinpeko aitortpena. (Eredua, honi erantsita doa).

- g) Behargintza Basauri-Etxebarriko Enpresa Sorkuntzarako Laguntza Zerbitzuan parte-hartzen duela ziurtatuko duen egiaztagiria, hori ekipo sustatzailea osatzen duten pertsona edo pertsonen izenean egongo da.

Baldin eta ez balitz eskatutako dokumentazio osoa aurkeztuko, Basauriko Udalak dagokion pertsonari eskatuko dio, ezen ez-egiteak zuzendu ditzala; baina aurkeztu gabeko dokumentazioa ez balitz aurkeztuko, horrek eskaria artxibatzea ekar lezake.

Halaber, Basauriko Udalak beharrezko jo lezakeen dokumentazio gehigarria eska lezake, hain zuzen, eskatzaileak laguntza-programa honetan parte-hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

5. Artikulua. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskariak aurkezteko epea, oinarri hauen behin-betiko testua BAOean argitaratu ondorengo biharamunean, hasiko da, eta amaitu berriz, esleitutako aurrekontu-zenbatekoa agortzen denean, edo hori gertatu ezean, 2007ko azaroaren 30n.

6. Artikulua. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK.

1. Ematen duen organoaren aurrean edo erakunde laguntzailearen aurrean zuritu egin beharko da, ezen laneko plana bete dela, hau da, Negozio Planaren prestaketan egindako lana egin dela, eta baita, proiektuaren bideragarritasun-azterketaren garapenean jarraipena adierazi beharko da. Hilero, negozio-planaren garapenean emandako aurrerapena egiaztatu beharko da.

Laguntzaren epea amaitutakoan, gehienezko 6 hilabeteko epean, onuradunak Behargintza Basauri-Etxebarri sozietateari, berak prestatutako enpresa-plana aurkeztu behar dio.

2. Bai Basauriko Udaleko Enplegu Arloari bai Behargintza Basauri-Etxebarri sozietateari, horiek eska diezaioketen informazioa eman beharko diote, horiek fiskalizatzeko dituzten funtzioen arabera eska diezaioketena, laguntza honen kargura jasotako dirulaguntzak diren bezainbatean.

1. Behargintza Basauri-Etxebarri sozietatearekin hitzartutako baldintzetan emandako edozein aldaketaren berri eman beharko dute.

2. Behargintza Basauri-Etxebarri sozietateari jakinarazi beharko diote, ea beste laguntzarik jaso duten, beren Negozio Planaren garapena dela eta, jaso ditzaketenen barruan. Lortutako laguntzen bateragarritasunari kalterik egin gabe, ordaindu daitezkeen gastuen barruan, bakarrik, enpresak beste dirulaguntzen bidez ordaindu gabe dauzkan gastuak sartuko dira.

3. Edozein aldaketaren berri ematea, edozein izanik ere inguruabarra, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartu bada, hori bestalde bai objektiboa bai subjektiboa izan daiteke.

4. Basauriko Udalak eska dezakeen edozein informazio ematea, emandako dirulaguntzei buruzkoa eta bere funtzioen egikaritzan bada.

7. Artikulua. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Dirulaguntza hauek osatzen dituzten funtsa publikoek izaera mugatua dute, hain zuzen, Basauriko Udaleko 2007ko aurrekontuaren erabilgarritasun-mugaraino, eta hori 2.079,35 eurora igotzen da.

Arautegi honetan araututako laguntzek Eusko Jaurlaritzaren babesa dute, eta baita Europar Gizarte Funtsarena ere, Izartu I. Planaren bidez.

8. Artikulua. BESTE LAGUNTZEKIN BATERAGARRITASUNA

8.1. Dirulaguntza hori bateragarria izango da beste edozein erakunde edo organismok eman ditzakeenekin, baldin eta hurrengo baldintzok beteko balituzte:

a) Oinarri hauetan ezarritako laguntzek, 96/C8/06 Batzordearen Komunikazioan ezarritako «mínimis» arauak bete beharko dituzte, hain zuzen, Europar Batasunaren markoan, horretarako eman diren «mínimis» laguntzak edo beste arau edo xedapenak, eta hori horrela, onuradun berari emandako laguntza desberdinen zenbateko osoa, «mínimis» kontzeptupean, ezingo da 100.000 euro baino handiagoa izan, hiru urteko epean.

b) Oinarri hauen babesean, diruz lagundu daitezkeen enpresen proiektuek ezingo dute beste laguntzarik jaso, edozein delarik ere bai horien izaera bai ematen duen Organo edo Administrazioa, baldin eta oinarri hauetatik eratorritakoei beste batzuk metatu, eta arategi komunitarioan aurreikusitako laguntzen metaketari buruz jarritako mugak gaindituko balituzte, eta inoiz ezingo dute, horien bidez subentzionatutako inbertsio edo gastu-proiektuaren kostua, gainditu.

c) Emandako laguntzetatik kengarriak izango dira zuzenean, beste Organo edo Administrazioek emandako beste edozein, eta diruz lagundu daitezkeen ekintzak diren bezainbatean, horietan helburu bera adieraziko balitz, eta aurreko zenbakian adierazitako gehienezko mugak gainditzen dituzten kasuetan.

9. Artikulua. BALORAZIOA ETA DIRULAGUNTZA EMATEA

9.1. Dirulaguntzaren balorazioa, hori ematea eta ordainketa, ekitaldian zehar, era jarraituan egingo da, eta modu horretan, helburu horretara esleitutako funtsak, ekitaldian zehar gastatzen, joango dira.

9.2. Epaimahaian, eskariei ebazpena emateko orduan, gutxienez, hurrengo hauek egon beharko dute:

- Sanitate, Kontsumo eta Enplegu Sustapeneko Atal Burua
- Udaleko Enplegu Teknikaria
- Behargintzako Autoenpleguko Teknikaria.
- Enplegu Sustapen Arloko Ordezkarria.

Eta hitza izango duen arren, boto eskubiderik gabe: talde politiko bakoitzeko ordezkari bana.

Dirulaguntzak emateko prozesuan zehar planteatzen daitezkeen gertakari eta erreklamaziorik ebazpena emateko eskumena du Epaimahaiak, eta baita, egoki iruditutako aurrekari edo txostenak eskatzeko eskumena ere.

9.3. Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagokaren arabera izango da

9.4. Salbuespenez, dirulaguntzak ematen dituen organoak prorrateo egingo du dirulaguntzaren onuradunen artean, dirulaguntzarako esleituta dagoen zenbateko osoa kontuan hartuta.

9.5. Epaimahaiak eskari guztiak aztertuko ditu, hain zuzen, oinarrietan ezarritako baldintzak bete eta hor adierazitako dokumentu guztiak aurkeztu dituzten eskariak, eskariak oinarri horiei jarraiki ebaluatuko ditu, eta ebazpena ematea dagokion organoari proposamena egingo dio, bestalde hor, dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta kopuruak agertuko dira, eskatzaile bakoitzaren meritu espezifikoen arabera.

9.6. Erabakitze ahalmena izango duen organoa alkatetza izango da, eta gehienez ere, eskaera jaso eta 6 hilabetera erantzun beharko du.

9.7. Berariazko ebazpena izan ezean, administrazioaren isiltasuna ezeztapen gisa ulertuko da.

10. Artikulua. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.

Epaimahaiak egindako balorazioa ikusita, eskariei, Alkatetzak hartutako erabaki bidez emango zaie ebazpena, eta ebazpen horren jakinarazpena idatziz emango zaie eskatzaileei.

Laguntza, adierazitako banku-zenbakian ordainduko da.

Dirulaguntzen ordainketa likidazio partzialetan egin ahal izango da.

11. Artikulua. OINARRIAK EZ BETETZEA.

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzetako bat ez balu beteko, dirulaguntza izateko eskubidea galdua lukeela adieraziko dion deklarazioa egingo litzateke, jasotako kopuruak itzultzeko obligazioa izango luke, eta dirulaguntzaren ordainketa unetik kontatuko diren berandutze-interesak eskatuko litzaizkioke.

12. Artikulua. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Izaera pertsonaleko datuak, oinarri hauei dagokien izapidetzearen ondoriozko dokumentazioan oinarrituta islatuko direnak, Udal honetako eta Basauri-Etxebarri Behargintza, SL Udal Sozietateko datu-fitxategiko zati izatera pasako dira, horiek, izaera orokorrarekin, eskaintzen dituzten zerbitzuen gestioa errazteko helburuz.

Dirulaguntzen programan parte-hartzeak eskatzen du, ezen ematen diren izaera pertsonaleko datuak beste Herri Administrazioen esku utziak izan daitezkeela, edo Basauriko Udalaren eta Basauri Etxebarri Behargintza SL Udal Sozietatearen erakunde laguntzaile direnen esku. Lagapen hori, hala ere, udalaren eta sozietate horren funtzioekin, zuzenean, zerikusia lukeen helburuak betetzeko egingo litzateke.

Pertsona eskatzaileak datu horiek sartu, zuzendu, deuseztatu eta kontra egiteko eskubidea erabili dezake, eta baita, legearen arabera dagozkion eskubideak ere, bai Basauriko Udaletxean, bai Baskonia kaleko 1.ean dagoen Basauri-Etxebarri Behargintza SL udal sozietatean.